

KONTROL MOZIOA

ARRAZAKERIA ETA XENOFIARIEN KONTRAKO POLITIKA BATERATUAK DIRELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko apirilaren 18an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2014ean, ICCren onespenearekin, Donostia kulturen arteko hiri izendatzeko adierazpena onartu genuen talde politiko guztiek eta hari buruzko irakurketa egin genuen udaletxeko terrazan, jatorri anitzeko hainbat pertsona irakurketara gerturatu zirela. Adierazpen hartan, jatorri eta kultura aniztasuna, migrazio eta asentamendu prozesuen ondorioz, XXI. mendeko Donostiaren elementu bereizgarriak direla aitortu zen eta horrelaxe jarri genuen balioan herritarren aurrean.

Konpromiso horri eta beste zenbaiti jarraiki, 2015ean berriro ere, martxoaren 21aren harira (Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna), talde politiko guztiok adierazpen instituzional bateratuaren irakurketa publikoa egin genuen. Eta berriro ere adierazi genuen irmoki ahalegin berezia egingo genuela, aurrea hartu eta salatzeko sexu, nazionalitate, jatorri etniko edo kultural, aukera sexual, desgaitasun edo sinesmenengatiko bazterkeria.

2016an gaude eta Donostia ezberdinen arteko elkarbizitzaren baloreetan oinarritutako Kultur Hiriburutzan murgildurik dagoen bitartean, European arrazakeria eta xenofobia jarrerak zabaltzen ari dira. Euskal Herrian bertan ere diskurtso xenofoboak entzun ditugu arduradun politiko eta instituzionalen ahotan.

2016ko martxoaren 21erako, EH Bilduk orain arteko konpromisoei jarraiki eta Udal Gobernutik proposamenik ez zetorrela ikusirik, adierazpen instituzionala egiteko proposamena luzatu zuen, baina Udal Gobernuak ez zuen konpromisoen inguruko irakurketa publikorik bideratu.

Hilabete honetako Pertsonen Batzordean gaia aintzat hartuko dela adierazi den arren, jasotako erantzuna orokorra eta zehazgabea da. Horregatik, hauxe da EH Bildu udal taldeak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako salaketa lana, sentsibilizazio kanpainak eta ekimenak hirian ugaritu ditzan, talde politiko eta hiriko eragile zein herritarren arteko bateratasuna eta haien parte hartzea bermatuz.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunean, ahalegin berezia egin dezala hiriko eragile eta talde politikoekin adostasunak bilatzeko eta herritarrak gonbidatuko diren adierazpen instituzionalaren onarpena eta irakurketa publikoa burutu dezan.

Donostian, 2016eko apirilaren 22an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia